

Ekintzaileei Laguntzeko Diru Laguntzak

Proiektua Ezartzeko Laguntza

HELBURUA: enpresa-jarduera bat hasi eta proiektua ezartzeko laguntza behar duten pertsonentzako laguntza ekonomikoak

NORI ZUZENDUA

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun honako hauek izango dira:

- Enpresaburuak eta banako profesionalak.
- Ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako kideak, betiere diru-laguntza nork bere ize-nean eskatzen badu.

Betiere, eskabidea aurkezten duten unetik, honako gutxieneko baldintza hauek betetzen badituzte:

- EAEn errolatuta egotea eta benetan bertan bizitzea.
- EJZn alta emateko egunean lanik gabe eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
- Alta emanda egotea EJZn (enpresaburua, norbanako profesionala edo ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila, hala badagokio) eta langile autonomoen araubide berezian edo, norberaren konturako langile gisa, kasu bakoitzean Gizarte Segurantzaren dagokionean, edo nahitaezko mutualitate profesionalean, 2020ko urtarrilaren 1etik eta dirulaguntza eskatu den egunera arteko epean.
- Enpresa-jarduerak EAEn izan beharko du egoitza soziala eta fiskala, eta lantokiak ere bertan egon beharko du.
- Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala EAEn egotea, eta lantokia ere EAEn kokatzea.
- Jarduera bera gauzatu ez izana, norberaren konturako langile gisa, Ekonomia Jardueren Zergan alta eman aurreko sei hilabeteetan.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatutako aurreko deialdietan, IV. eta V. kapituluetan araututako laguntza-lerroen onuradun ez izatea.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK:

Deialdi honen babesean diruz lagundu ahal izango dira aktibo finko hauetan egiten diren inbertsioak, baldin eta jarduerarekin lotura zuzena badute:

- Makinak.
- Instalazioak.
- Erremintak.
- Altzariak.
- Informazioa prozesatzeko ekipok.
- Enpresa-jarduerari edo jarduera profesionalari zuzenean eta eskusiboki lotutako garraio-elementuak.
- Frankizia-kontratuak.
- Aplikazio informatikoak.

- Merkataritza funtsa
- Aplikazio informatikoak

GASTU HAUTAGARRIAK:

Adierazitako inbertsioak diruz lagundu ahal izateko, horiek 5.000 euro edo gehiagokoak izan behar dute, eta onuradunek inbertsioak gauzatu beharko dituzte, 2020ko urtarrilaren 1etik eta dirulaguntza eskatu den egunera arteko epean.

Diruz lagundutako inbertsioek enpresa-jarduerari lotuta jarraitu beharko dute gutxienez bi urtez, eskuratu zirenetik aurrera (fakturaren data).

LAGUNTZEN MODALITATEA ETA ZENBATEKOAK:

Kapitulu honetan araututako laguntzaren zenbatekoa 3.500 eurokoa izango da onuradun bakoitzeko. Zenbateko hori % 15 handituko da baldin eta sustatzailea 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada, eskaera aurkezteko unean, eta beste % 15, baldin eta emakumea bada.

AURKEZPEN EPEA:

Laguntza eskaerak aurkezteko epea deialdi hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta **2020ko urriaren 30en** amaituko da.

Kapitulu honetan aurrez ikusitako laguntzak lortzeko eskaerak IV. eranskinean jasotako eredu ofizialaren bidez aurkeztu beharko dituzte ekintzaileek. Eredu hori honako toki hauetan eskuratu ahal izango da: <http://www.lanbide.euskadi.eus> web-orrian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegu-bulegoetan. Horretaz gain, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudian aurrez ikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Informazio gehiago: <https://lanbide.euskadi.eus>